

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



**Plan Orokorraren Bulegoa**  
**Oficina del Plan General**

---

#### **XIV. EKONOMIAREN ETA FINANTZEN ARLOKO EGOERA**

---



#### **XIV.01. IRIZPIDE OROKORRAK.**

---

Oinarrian Jarduketa-Programaren laguntzarako tresna gisa prestatu denez, Azterketa Ekonomiko eta Finantzarioan, Udalak, dagokion unean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean adierazten diren helburuak lortzearren, bai berak dauzkan baliabideen bitartez, bai eta beste udaletako baliabideen bitartez ere (EAE, Aldundia, etab.) inbertsiotarako izango duen gaitasuna aztertu beharko da.

Arau Subsidiarioen behin-betiko onespeneraren ondoren Udalak egin dituen inbertsioen mailak nolakoak izan diren jakiteko informazio gisa eta urteen arabera, gastuen eta sarrereren atalei dagozkien datuak azaltzen dira.

Gauzak horrela, ikuspegi zabala eduki daiteke, barne hartzen den aldia zabala baita, eta horrez gain etorkizunean Udalak HAPOaren garapenerako edukiko dituen benetako aukeren oinarriak ere ezartzen ditu.

Informazio ekonomiko honetan ez dira hirigintza-jardueretan partikularrek egindako inbertsioak neurtu, nahiz eta inbertsio horiek funtsezkoak izan. Nahikoa litzateke kontuan edukitzea bizitokietarako edo industrietarako egindako eraikuntzak, izan ere horiek guztiak amaitu direnean, udal-ondarera inkorporatu baitira.



**XIV.02.**

**AASS-AK ONARTU ONDORENGO GASTUEN ETA SARREREN, EGINDAKO INBERTSIOEN, BALIABIDE PROPIOEN ETA BESTEEN BALIABIDEEN KAPITULUEN ZERRENDIA.**

**XIV.02.01. Gastuen kapituluak (likidatutako obligazioak)**

Ekitaldia	6. kapitulua Benetako inbertsioak	7. kapitulua Kapitalaren transferentzia	9. kapitulua Finantza-pasiboak	Guztira
1992				
1993	744.783	55.529	204.025	1.004.337
1994	381.580	45.784	2.268.452	2.695.816
1995	930.136	47.001	276.832	1.253.969
1996	557.484	29.551	264.485	851.520
1997	866.966	48.893	300.462	1.216.321
1998	1.316.908	26.568	327.463	1.670.939
1999	927.803	62.636	654.326	1.644.765
2000	1.088.962	58.891	544.018	1.691.871

Zifrak milaka pezetatan

**XIV.02.02. Sarrerren kapituluak (likidatutako eskubideak)**

Ekitaldia	6. kapitulua Benetako inbertsioen besterentzea	7. kapitulua Kapital-transferentzia	9. kapitulua Finantza-pasiboak	Guztira
1992				
1993	18.099	287.448	403.772	709.319
1994	-----	113.964	2.311.246	2.425.210
1995	267.660	273.713	226.854	768.227
1996	-----	38.013	283.557	321.570
1997	80.071	130.513	325.000	535.584
1998	387.887	159.211	661.446	1.208.544
1999	61.537	110.072	675.170	846.779
2000	385.580	183.124	270.000	838.704

Zifrak milaka pezetatan